

# OSASUNA HERRIALDE GARATUETAN ETA EZ-GARATUETAN



## MONOGRAFIA

## IRAKASLEEN MATERIALA

Berritzeguneak  
Araba - Bizkaia - Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

## PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

### AZALPEN TESTUAK

Azalpen testua edukiak transmititzeko bide nagusietako bat da ikas-irakaskuntza prozesuetan. Beraz, testu tipu honen produkzioan trebatu behar ditugu ikasleak ikasketa prozesua behar bezala burutu, eta kontzeptu eta eduki berriak era egokian bereganatuko badituzte, informazioaren muinera iritsi eta berori zuzen jaso eta azaltzeko. Horregatik, aurreko ikasmaitetan landu bada ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere jorratuko dugu testu tipu hau testu-genero ezberdinen bidez.

Azalpen testuak lantzeko beroriek sortzen diren testuinguruaren analisia egitea funtsezkoa izango da. Horretaz gain, ikasleek egiturari eta testu barruko ezaugarriei ere erreparatu beharko diete; izan ere ezaugarri horiek ikasketa eremuan burutuko duten lanarekin lotura zuzena dute eta hizkuntza-trebetasun bereziak behar dituzte, beste testu tipu batzuen bidez ikasiko ez dituztenak.

Bestalde, gaitasun komunikatiboaren barruko lau azpi-gaitasunak landuko dira, hau da, gaitasun soziolinguistikoa, diskurtsiboa, linguistikoa eta maila apalagoan bada ere, gaitasun estrategikoa.

3. DBHrako proposatzen dugun proiektu honek Hizkuntzen Trataera Bateratua deritzon Programaren ildoari eusten dio. Ikasleek H1 eta H2an azalpen testuko bi testu genero ezberdin landu eta gauzatuko dituzte, edukiak eta trebetasunak gaztelania eta euskara arloen artean banatuko direlarik.

# HIZKUNTZEN TRATERA BATERATUA 3DBHrako PROIEKTUA EUSKARA/GAZTELANIA

## KOMUNIKAZIO EGOERAREN DESKRIBAPENA

Aberastasunaren banaketak eta produkzio-ondasunen jabetzak mundu garatua eta ez-garatua sorrarazi dituzte. Halaber, desberdintasun horiek, neurri handi batean, eragina dute osasunean: herrialde garatueta, kolesterola, hipertentsioa, loditasuna... bezalako gaixotasunak dira ohikoenak ; beste latitude batzuetan, aldiz, desnutrizioa , errakitismoa, malaria, paludismoa ...eta HIESa dira nagusi.

Errealitate hauek eta giza eskubideen deklarazioa kontuan harturik, osasunaren, aberastasunaren eta pobreziaren arteko erlazioei buruzko hausnarketa eta ikerketa egiteko proiektu komuna aurkezten dugu.

Bi ekoizpen gauzatuko dira: H1ean "Osasuna herrialde garatueta eta ez-garatueta" (monografia) eta H2an elikadurari buruzko glosategia.

## PROIEKTUAREN ARDATZ BATERATUA

**Tipoa** : Azalpen testua  
**Eremua** : Ikasketako hizkuntza  
**Gaia** : Osasuna

## HELBURU OROKORRAK

- Ikasketa eremuan, bereziki, erabiltzen diren dokumentazio prozedurak eta informazioaren trataera ezagutzea eta erabiltzea.
- Azalpen testuei dagozkien ezaugarriak bereiztea eta erabiltzea.
- Igorlearen ezagupen maila, egoera, eta komunikazioaren helburua kontuan hartuta idatzizko informazioa erraz eta modu eraginkorrean transmititzeko estrategia egokiak erabiltzea.
- Osasuna baloratzea eta gure bizimoduan ohitura osasungarriak sartzea.

Lan proposamen honetan ikasleek taldeka azalpen testu bat ekoiztuko dute, monografia. Horretarako gai zehatz bat emango diegu, hain zuzen ere, herrialde desberdinetako osasun egoerak aztertzea.

Lan egiteko informazioa hainbat iturritatik jasoko dute (Internet, entziklopediak, liburu tematikoak...).

Lana amaitzen dutenean liburutegian edota ikasgela bateko liburutegi txokoan jarriko dute ikusgai.

## H1: EUSKARA

### Monografia Osasuna Herrialde garatuetan eta ez-garatuetan

Ikasleek , taldeka bildurik , bi herrialde, bata garatua eta bestea ez-garatua, hautatu eta bien osasun egoeraren konparazio analisia egingo dute monografia testu generoaren bidez.

### KOMUNIKAZIO EGOERA

Gaia : **Osasuna herrialde garatu eta ez- garatuetan**

Igorlea :**Taldeko ikasleak**

Hartzailea : **Beste taldeko ikasleak**

Kanala : **Idatzia**

Asmoa eta helburua : **Herrialde garatu eta ez-garatu osasun egoeraz**

**ikaskideei informazioa jakinaraztea**

Argitalpen lekua : **Ikasgelako/ikastetxeko liburutegia**

Eremua : **Ikasketako hizkuntza**

### TESTU GENEROEN ERREPERTORIOA

- Giza eskubideen deklarazioa
- Mapak: Mundia eta Peters proiektzioa
- Testuliburuak: ekonomia, medikuntza.
- Entziklopediak
- Especializatutako hiztegiak
- Artikuluak
- Monografiak

- Editorialak
- Informazio liburuxkak
- Dokumentalak
- Estatistikak eta taulak
- Laburpenak
- Aurkibideak

## UNITATEAREN BIZKARREZURRA

LAN- SEKUENTZIAK	JARDUERAK
	<b>0. Negoziazioa</b>
<b>1. Monografia. Zer da?</b>	<b>1. Monografiaren eta azalpen testuen ezaugarriak zehazten</b> <b>2. Glosategia eta monografia</b> <b>3. Objektibotasuna/subjektibotasuna bereizten</b> <b>4. Lexikoa. Hitzak sailkatzen</b>
<b>2. Gaia ondo zehaztuko dugu : Herrialde garatu eta ez- garatuen aldeak</b>	<b>5. Herrialde garatuen/ez garatuen ezaugarriak aztertzen</b> <b>6. Zenbait datu Interneten jasotzen</b> <b>7. Grafikoak : azalpen testuetan informazio bide garrantzitsuak</b>
<b>3. Azalpena nola antolatu dezakegu era egokian?</b>	<b>8. Testu antolatzaileak eta lokailuak</b> <b>9. Herrialdeen kokapena azaltzen</b>
<b>4. Monografia idatziko dugu</b>	<b>10. Planifikazioa</b> <b>11. Aztergaiak aukeratzen</b> <b>12. Datuak biltzen eta lanaren helburuak zehazten</b> <b>13. Gidoia eta eskema osatzen</b> <b>14. Konparazio-egitura</b> <b>15. Konparazio egitura garatzeko sintaxia ariketak</b> <b>16. Sarrera idazten</b> <b>17. Azken ekoizpena</b>

## HELBURU DIDAKTIKOAK

1. Azalpen testuen zenbait ezaugarri bereiztea.
2. Monografiak genero gisa dituen ezaugarriak identifikatzea.
3. Glosategia eta monografia azalpen testuko bi genero ezberdin gisa bereiztea.
4. Azalpenetan objektibotasunaren eta subjektibotasunaren ezaugarriak identifikatzea.
5. Azken produkzioari begira informazio egokia bilatzea eta aukeratzea.
6. Grafiko bidezko informazioa azaltzea.
7. Talde lanetan eztabaidatzen jakitea.
8. Hainbat Iturri ezberdinetatik jasotako informazioa egoki hautatzea.
9. Ahozko azalpen laburretan informazioa zehatz eta ordenaturik ematea.
10. Kohesio elementuak zuzen erabiltzea.
11. Kohesio emaleen esanahia ondo bereiztea (kontrastea adieraztea, adibidea...).
12. Informazio nagusiak eskematxoen bidez adieraztea.
13. Azalpena konparazio egituraren bidez ematen jakitea.
14. Ikaskideek esaten dutena errespetatzea (lana eta iritziak).
15. Lana planifikatzea.
16. Azken ekoizpena txukun eta modu erakargarrian aurkeztea.

## EDUKIAK

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p><b>Azalpen testuak eta monografiak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ezaugarri orokorrak</li> <li>➤ Monografiaren ezaugarriak behinenak</li> </ul> <p><b>Glosategiaren eta monografiaren ezaugarri bereizgarriak</b></p>	<p>Testuen konparazioa eta sailkapena.</p> <p>Ideien antolaketa testu koherentea lortzeko</p> <p>Kohesio elementuen erabilera egokia</p> <p>Eduki beraren testualizazioa testu-mota ezberdinetan:</p>	<p>Ikaskideekiko errespetua.</p> <p>Besteen ideien adierazpenen aurrean jarrera ireki eta errespetuzkoa.</p> <p>Interesa eta gogoia lana ahalik eta modurik erakargarriean</p>

<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Azalpen testuen barneko bi testu genero ezberdin.</li> <li>➤ Partekatzen dituzten ezaugarriak.</li> <li>➤ Ezaugarri bereizgarriak.</li> </ul> <p><b>Objektibotasuna eta subjektibotasuna</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Aditz modua, denbora eta pertsona nolakoak?</li> <li>➤ Lexikoa</li> </ul> <p><b>Monografia idazteko lexikoa.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hitzen sailkapena lexiko sorkuntzarako bideen arabera.</li> </ul> <p><b>Azalpen testuko ideien antolaketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Kohesio elementuak (lokailuak eta testu antolatzaileak)</li> </ul> <p><b>Grafikoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Grafiko motak</li> <li>➤ Grafikoak laburbiltzen duen informazioaren ezaugarriak</li> </ul> <p><b>Azalpena idazteko konparazio-egitura</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Egituraren analisisa</li> <li>➤ Konparaziozko eta moduzko perpausak</li> </ul>	<p>grafikoetako informazioa ahozko testu edo idatzizko testu bihurtzea...</p> <p>Konparazio egitura sintaktikoak lantzea</p> <p>Informazioaren laburpena gidoen bidez</p> <p>Informazio-iturrien erabilera</p> <p>Informazio bilketarako tekniken erabilera</p> <p>Testuaren plangintza: edukiaren egituraketa, informazioa zehatz eta ordenaturik adierazteko</p> <p>Testuen berrikusketa eta zuzenketa</p>	<p>aurkezteko.</p> <p>Hizkuntza idatziaren balorazioa zeregin konkretuen plangintza eta lanketarako tresna gisa.</p> <p>Norbere testu idatzia berrikustearen garrantziaren balorazioa.</p> <p>Inoren mezuen kalitatearen estimua.</p> <p>Komunikazio-arauen balorazioa eta errespetua</p> <p>Azken ekoizpena txukun eta modu erakargarrian aurkezteko interesa</p>
---	--	--

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Azalpen testuen ezaugarriak identifikatzen ditu.
2. Monografia beste testu genero batzuetatik bereizten du.
3. Glosategiak eta monografiak azalpen testuen barruko bi genero ezberdin gisa dituzten ezaugarri bereizgarriak identifikatzen ditu.
4. Objektibotasunaren eta subjektibotasunaren ezaugarriak antzematen daki.

5. Badaki azken produkzioari begira informazio egokia bilatzen eta hautatzen.
6. Internet edo beste iturri batzuk erabiliz gaiari lotutako informazio egokia lortzeko gauza da.
7. Badaki grafikoetako informazioa ahoz/idatziz azaltzen.
8. Talde lanetan errespetuz eztabaidatzen du eta beste inoren iritziak onartzen ditu.
9. Gauza da informazioa egokia hautatzeko.
10. Badaki ahozko azalpen laburretan informazioa zehatz eta ordenaturik ematen.
11. Kohesio elementuak egoki erabiltzen ditu.
12. Kohesio emaleen esanahia ondo bereizten du.
13. Informazio nagusia eskematxoen bidez adierazteko gauza da.
14. Azalpena konparazio-egituren bidez ematen du.
15. Lana planifikatu eta azken ekoizpena txukun eta ondo antolatuta aurkeztu du
16. ...

## EBALUAZIOA

### 1.- Ebaluazioak bi atal izan ditzake:

**Batetik ikastunitatearen bidez ikasitakoa ebalua dezakeena.**

- **Proba bidez ebalua liteke (guztira, lau puntu)**

**Bestetik, azken ekoizpena baloratuko lukeena, hau da, monografia ( 6 puntu).**

**Unitatearen helburu didaktikoei begira ondokoak dira atal bakoitzean baloratuko liratekeen helburuak**

<b>PROBA IDATZIA 4 puntu</b>	<b>EKOIZPENA 6 puntu</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>○ Azalpen testuen zenbait ezaugarri bereiztea.</li><li>○ Monografiak genero gisa dituen ezaugarriak identifikatzea.</li><li>○ Glosategia eta monografia azalpen testuko bi genero ezberdin gisa bereiztea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>○ Azken produkzioari begira informazio egokia bilatzea eta aukeratzea.</li><li>○ Talde lanetan eztabaidatzen jakitea.</li><li>○ Hainbat Iturri ezberdinetatik jasotako informazioa egoki</li></ul>



<ul style="list-style-type: none"><li>○ Azalpenetan objektibotasunaren eta subjektibotasunaren ezaugarriak identifikatzea.</li><li>○ Grafiko bidezko informazioa azaltzea.</li><li>○ Kohesio emaleen esanahia ondo bereiztea (kontrastea adieraztea, adibidea...).</li><li>○ Informazio nagusiak eskematxoaren bidez adieraztea.</li><li>○ Konparazio egitura sintaktikoak lantzea. Konparaziozko eta moduzko perpausak</li></ul>	<p>hautatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Ahozko azalpen laburretan informazioa zehatz eta ordenaturik ematea.</li><li>○ Azalpena konparazio egituraren bidez ematen jakitea.</li><li>○ Ikaskideek esaten dutena errespetatzea (lana eta iritziak).</li><li>○ Lana planifikatzea.</li><li>○ Azken ekoizpena txukun eta modu erakargarrian aurkeztea.</li></ul>
---	--



Antsietateek ez dute agertzeko modu bakar bat, jakina: pertsona batetik bestera azalera oso desberdinak izaten dira. Denetan ohikoena den antsietate jeneralizatuko trastornoa nerbio sistemaren kitzikatzearen ondorioz gertatzen da, eta ondoko sintomak agertzen ditu:

- Lepo, sorbalda eta bizkarrean tentsioa
- Urdailean korapiloa izatearen sentrazioa, are goragalerik ere
- Izerdi ugari, eskuak dardara
- Bularrean zanpatze sentrazioa, arnasteko zailtasunak, pultsua azkar
- Kontzentratzeko zailtasunak
- Sumingarritasuna, loaren alterazioak
- Libidoaren apalaldia, erekzio disfuntzioa
- Neke eta unadura sentrazioa
- Maiz, sufritze sentrazioa, zoriontsu ez izatearena

(2004 urtea) <http://revista.consumer.es/web/eu/>

**3.- Irakurri ondoko testu hau eta esan idazleak zein ikuspunturi eutsi dion, subjektiboari ala objektiboari. Arrazoitu, adibideak jarriaz, horren zergatia (0,5ptu.).**

## berria

Beltzaren duintasuna

Latino kafetegi zaharrean nago, ukalondoa mostradorean. Urteek euren gizatasunezko igurtzia eman dioten egur ilunkara hau izugarri gustatzen zait. Ehun urtetan hemen egon izango ziren gizakien zerrendan sartuta, bakean sentitzen naiz.

Zer-pentsa nago, zer-suma. Gizon beltz bat sartu da, ohi duten isiltasunarekin, eta haren begirada zorrotza niregana dator zuzen-zuzenean, espazioa janez. Aurrean geratu eta eskuetan dakartzan txipli-txaplak eskaini dizkit. Aurpegi noblea dauka gizonak, ilea txuritzen hasia, masail leunak, kokots indartsua; konfiantza eskaintzen duen aurpegia da. Eta pentsatu dut: seguru gizon hau bere herrian bazela norbait, seguru errespetatua zela, seguru jendeak aholkuak, mesedeak eta laguntza eskatzen dizkion horietakoa zela, orain gurean katxibatueen saltzaile koitadu bihurtu aurretik, salmenta klandestinoen mafiaren morroi, beste hamar kideekin zapaldu beharko duen etxebizitza zikinera iritsi aurretik. Etorkinak orain modan jarri zaizkigu: literaturan, haurrentzako ipuinetan, zutabeetan, erreportaietan eta beste edonon gure leku literarioa eman diegu. Kantak eskaintzen dizkiegu, sub-kontseilaritza bat ere bai, hilerio jasotzen dituzten gure arropa zaharrekin batera. Bi sentimenduk zeharkatzen dute gure gizartearen bihotza etorkinen aurrean: errukiak batetik, erdeinuak bestetik. Erruki hori kristaua da apur bat, ezkertiarra beste pixka bat, benetakoa beste askotan; begiak zabaldurik begiratzen diegu. Erdeinuak denak delinkuente moduan ikustera garamatza; ez diegu aurpegira begiratzen.

Ez diot ezer erosi, eta taberna iragan duenean nire ondoan eseri da atsedean bila. Zerbait hartzera gonbidatu dut, eta pozik onartu du, aurpegia argituta. Kafesne bat atera dio barmanak. Ona dagoen keinua egin du, eta gero hitzik esan gabe geratu gara elkarren ondoan, elkarri begiratu gabe. Galde niezaiokeen haren etniaz, haren lurraldeaz, bidaiaren gogorraz; edo berak nire lanaz,

nire familiaz, nire bidaia gozoez. Baina ez. Onartu egin dut, bat gehiago bezala Latino kafetegi zaharrean. Berak onartu egin nau, ezer salduko ez dion norbait bezala. Ez zait miresgarri, ni ere ez berari, antza. Bukatu duenean bi metxero oparitu dizkit. Ezetz diot. Berak hartzeko. Jaso duenaren eman nahia. Kafesnea baino garestiagoak direla diot, baina hartu egin dizkiot. Zera esan du:

Inork ez nau gonbidatu gaurdaino. Niretzat gauza handia da!

Pako Aristi

Testuaren ikuspuntua:

Zergatiak:

Ezaugarriak:

---

---

---

---

---

---

**4.- Zehaztu zein diren testu honetan ageri diren lokailuak. Era berean, esan zer adierazten duten ( ideiak gehitzea, kontrastea adieraztea, adibideak jartzea, azalpenak ematea...) (1ptu.).**

#### **Anorexia Interneten**

**Anorexia eta bulimia kasuek ez dute behera egin Euskal Herrian. Zenbait gaztek web orrien bidez horiek bultzatzeari ekin diote. Sekulakoak irakur daitezke orrialde horietan. Esaterako, arrautza galdua jatea ona dela, salmonelosiak gaixo jartzeko...**

Irudiarekiko menpekotasunak 100 gazte euskaldunetik 1 anorexiko egiten du. Beldurgarria badirudi ere, zenbakiak tamalez ez dute behera egin azken denboran. Publizitateak eta komunikabideek lau haizeetara defendatzen duten edertasun irudiak ez du sarritan zerikusirik kalean ikusten dugun errealitatearekin. Hala ere, telebistan garbigarri bat saltzeko bada ere hezurretaraino argaldu dituzten gizon eta emakumeak erakustearekin tematu egiten dira.

Duela urte batzuk, elikadura nahasketarekin lotuta dauden gaixotasun hauek azalera atera zirenean, bazter guztiak aztoratu zituzten. Egun, aldiz, askoz gertuago sentitzen ditugu. Baina ez daude gaindituta, ezta gutxiago ere. Oraintsu, sekulako iskanbila sortu dute Interneten agertu diren webgune batzuek: bertan, anorexia eta bulimia duten gazteek aholkuak trukatzan dituzte, argalago egoteko eta gutxiago jan ahal izateko.

Orrialde horietariko batzuk itxiarazi egin dituzte, gehiegizkoak zirelako, baina beste asko oraindik ere Interneten dira. Eta, gainera, askok erabiltzen dituztela diote datuek. (...)

Bizitzeko filosofiatzat jotzen dute. Gainera, erraz identifika daitezke; izan ere, bulimia dutenak beiraz eginiko besoko gorri bat daramate, eta anorexia dutenak, aldiz, besoko zurixka bat.

Sekulakoak irakur daitezke orrialde horietan. Esaterako, izotz puskak mastekatzea ona dela diote; hala, organismora hotza igarotzean, kaloria gehiago erretzen dira. Ematen duten beste aholkuetako bat arrautza galdua jatea da, salmonelosiarekin gaixotzeko, eta, hala, argaltzeko. Baina denetan deigarriena euren bizi-filosofia da: "bihotz-bihotzez" anorexikoa edo bulimikoa izatea aldarrikatzen dute, itxurazkoak diren asko omen dago eta. Mila bider errepikatzen dute janaria mantso hiltzen duen droga dela.

(...)Anorexia eta bulimiaren mundua, beste asko bezala, topikoz josia dago. Hala nola, ez da 12 eta 14 urteko neskatilen kontua, askok uste duten bezala; batez bestekoa 23 urteetan dago, eta 50 urteko emakumeek ere izaten dute. Gainera, Garbiñe Agirrek esan duenez, "modeloekin soilik lotzea ere okerra da erabat; izan ere, badago anorexia eta bulimia gaixotasunak moda munduarekin zuzenean lotzen duenik". Gaixotasun bat da, beste asko bezalakoa, eta edonori iritsi dakioke.

(...) *Iturria:* <http://www.matraka.info/>

#### Lokailuak

#### Esanahia

Lokailuak	Esanahia

**5.- Berridatzi ondoko esaldi hauek konparazio egiturak erabiliz (0,5 ptu.)  
( berridazketa batzuk proposatu...)**

**MONOGRAFIA EBALUATZEKO TXANTILOIAK ( GUZTIRA, 6 PUNTU)**

	<b>BIKAIN</b>	<b>ONDO</b>	<b>HOBETU BEHARREKOA</b>	<b>OSO GAIZKI</b>
<b>INFORMAZIOA BILTZEA</b>	Web helbideetako informazioetara jo eta datu esanguratsu eta egokiak jaso dituzte.	Informazio bilketa egokia izan da, baina jasotako datuak ez dira nahikoak eskatutako jarduera burutzeko.	Bildu eta aukeratu dituzten datuek eskatutakoaren alderdi txiki bat baino ez dute zehazten.	Ez da informazio bilketa eraginkorrik egin, ezta datuen hautaketa egokirik ere.
<b>20 PUNTU</b>	<b>20</b>	<b>12</b>	<b>6</b>	<b>0</b>
<b>INFORMAZIOAREN HAUTAKETA ETA TALDE-LANA</b>	Txostenaren garapenerako datu zehatzak hautatu dituzte taldekide guztiak elkarlanean. Datu bilketa eta hautaketa eraginkorra eta ona burutu dute.	Azalpenaren garapenerako datu partzialak baino ez dituzte bildu, hala ere, datu bilketa, oro har, egokitzat jo daiteke. Bestalde, taldekide batzuek besteek baino lan handiagoa egin dute.	Azalpenaren garapenerako datu gutxi bildu dituzte. Horretaz gain, lankidetzaz falta sumatu da eta kide batzuek ez dute egin eskatutakoa.	Datuak oso gaziki bildu dira; izan ere kopia hutsa izan da. Bestalde, ez da inolako talde lanik ezta partaideen ekarpenik ere izan.
<b>20 PUNTU</b>	<b>20</b>	<b>12</b>	<b>6</b>	<b>0</b>
<b>MONOGRAFIAREN, AZALPENAREN EGITURAKETA</b>	Azalpena oso ondo egituratu dute (Sarrera, Garapena eta Ondorioa) . Bestalde, testua koherentziaz dago idatzita. Paragrafoen banaketa eta antolaketa egokia da eta testuaren barne antolaketa erakusten du. Ongi egina.	Oro har, azalpena ondo ulertzen da. Sarrera , garapena eta ondorioa ez daude hain ondo bereiztuta baina egokia da. Hala ere, badu akatsik. Paragrafoen antolaketak gaingiroki adierazten du testuaren antolaketa. Zuzentasun linguistikoan arazotxoak ikusten dira.	Egiturak eta azalpenak koherentzia akats handiak erakusten ditu. Ez da hautaketa egokia egin. Paragrafoen banaketa eta antolaketa ez da egokia. Akats linguistiko handiak.	Testuak akats handiak ditu, bai egituraketan bai bertan adierazitako edukian. Formari begira ere oso gaizki dago.
	<b>20</b>	<b>12</b>	<b>6</b>	<b>0</b>

	LAN DESEGOKIA	LAN EGOKIA	LAN BIKAINA
	0-0,5	0,5-0,8	0,8-1
<b>INFORMAZIOA BILTZEKO PROZESUA</b>	Informazio bilketa urria izan da eta informazio gutxi jaso dute	Informazio bilketa egokia izan da.	Informazioa zabal bildu eta sakon landu da.
<b>IDAZKETA</b>	Testuak huts egiten du planteamenduan (sarrera, garapena eta ondorioa) eta horrek koherentzia arazoak sortzen ditu. Aurkezpenak akats handiak ditu edukiaren egituraketari dagokionez.	Testu koherentea da eta planteamendu egokia du (sarrera, garapena eta ondorioa). Aurkezpenak, oro har, eskatutakoa betetzen du. Edukiaren antolaketan akats batzuk antzematen dira.	Testuaren planteamendua (sarrera, garapena eta ondorioa) oso ondo dago egituraturik, erakargarria da eta interesa pizten du Aurkezpenak, forman nahiz edukian, eskatutakoa jasotzen du. Datuak era egokian garatzen dira eta bi mundu zeharo ezberdinen kontrastea islatzen da. Ideiak koherentziaz daude antolaturik eta norberaren ondorioa ageri da. Aurkezpenaren formatua egokia da eta testuaren osagarri eta indargarri irudiak eta grafikoak erabili dira..
<b>KONPARAZIO TESTUA. EDUKIAREN ANTOLAKETA</b>	Konparazio egiturak koherentzia akats handiak erakusten ditu. Ez da konparazio gaien hautaketa egokia egin. Paragrafoen banaketa eta antolaketa ez da egokia. Akats linguistiko handiak.	Oro har, konparazio testua egokia da. Hala ere, konparaziorako erabilitako gaien hautaketak badu akatsik. Paragrafoen antolaketak gaingiroki adierazten du testuaren antolaketa. Zuzentasun linguistikoan arazotxoak ikusten dira.	Konparazio testua koherentziaz idatzita dago. Ongi aukeratu ditu konparazio gai guztiak. Paragrafoen banaketa eta antolaketa egokia da eta testuaren barne antolaketa erakusten du. Ongi egina.
<b>LEXIKOA, ORTOGRAFIA ETA PUNTUAZIOA</b>	Akats handiak lexikoan, ortografian eta puntuazioan	Lexikoan, puntuazioan eta ortografian akats batzuk zuzendu behar dira.	Lexikoa, ortografia zein puntuazioa ondo landu dira eta prozesu osoan zehar behin eta berri zuzendu dira.
<b>ORDENADOREZ EGINDAKO LANA</b>	Testua eta azalaren diseinua ez daude batere ondo eginak.	Monografia ondo burutu duten arren, bai testuak bai azalak hobetu daitezkeen alderdiak dituzte.	Testua eta lanaren aurkezpena oso ondo egituratuta daude.
<b>TALDE LANA. JARRERA ETA JOKABIDEA</b>	Zail samarra izan da taldekideen arteko lankidetzaren eta partaidetzaren lortzea. Lan gutxi egin dute. Kide batzuek ez diote taldeari ekarpenik egin.	Eztabaida biziak izan badituzte ere, azkenean, egokia izan da lankidetzarako erakutsi duen jarrera eta ekarpenak egin dituzte.	Eskatu zaien partaidetza eta talde osoarekiko lankidetzaren bete-betean burutu dute. Kide bakoitzak berari dagokion lana taldekideen mesedetan burutu du.

## JARDUEREN DESKRIBAPENA ETA OREINTABIDE DIDAKTIKOAK

### Hausnartzeko jarduera/ 0. jarduera

**Hausnartzeko** izenburupean ageri diren irudiak gaiari buruzko eztabaida pizteko eta interesa sorrarazteko proposatu ditugu. 0 jarduerarekin batera hasierako saiorako planteatu daiteke.

Ikasleak taldeka bilduko dira eta irudiei erreparaturik bertan ageri diren galderak, edo irakasleak pentsatutako beste batzuk, erantzun eta iritzia eman dezakete.

Horrekin batera negoziatu egingo dugu unitatean egingo dutena **(0. jarduera)**.

Ikasleek taulako proposamenetan ezin dute askorik kendu, agian beste proposamen batzuk erantsi ahal izango dituzte. Kendu daitezke, esaterako azterketen bidezko ebaluazioa edota koadernoan zuzenketaren bidez proposatzen dena...

### **1. jarduera: monografiaren eta azalpen testuen ezaugarriak zehazten**

Jarduera honetan azalpen testuen ezaugarri orokorrak eta, bereziki, monografiari dagozkionak aztertuko dituzte, adibidetzat emango dizkiegun erduei erreparaturik.

Hemen daukazue ikasleei aurkezteko moduko monografiak:

Materiala:

#### **Zenbait monografia (euskaraz)**

- 1.- <http://www.saretik.net/testuak/emaitzaeus.asp> **(bi monografia labur)**
- 2.- [http://www.aisia.net/albisteimages/pdf1\\_134.pdf](http://www.aisia.net/albisteimages/pdf1_134.pdf)
- 3.- <http://www.unescoeh.org/dokumentuak/carp3eusk.pdf>
- 4.- [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4892/eu/contenidos/planes/plan\\_residuos\\_peligrosos/eu\\_10758/adjuntos/vehiculos.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4892/eu/contenidos/planes/plan_residuos_peligrosos/eu_10758/adjuntos/vehiculos.pdf)
- 5.- <http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-19024/eu/> (osasanari lotutako zenbait gai monografiko)

#### **(gaztelaniaz)**

- 5.- <http://www.monografias.com/trabajos7/mono/mono.shtml#bus>

Material gehiago:





[Alzheimer-a](#) - Gaixotasun honi buruzko informazioa, Consumer aldizkariaren eskutik..



[Azaleko minbizia](#) - Consumer aldizkariak eskainitako informazioa..

[Minbizia](#) - Gaixotasunari buruzko 12 orrialde, Elhuyarreko Zientziaren gunearena. [PDF].

Bestalde, informazio osagarri moduan, ikasleek behaketa fitxa bete ondoren, ezaugarri orokorrak emateko baliagarria izan dakizueke honako testu hau:

### Lan monografikoak nola egin

**Lan monografikoak maiz erabiltzen dira unibertsitatean ikaskuntza eraginkorragoa izan dadin. Hala ere, batzuetan, kontrakoa gertatzen da eta lan mota honek problemak sortzen ditu egiletzaren alorrean zein gida didaktiko ezagatik ikasle eta irakasleen artean**

Lan hauek bakarka edo taldeka burutu ahal dira eta eskuarki ordenagailuak baliatzen dira egiteko eta aurkezteko. Nik lerro hauetara, [Guillermo Ballenat](#)ok jartzen dituen aholkuak edo arauak ekarriko ditut nire ekarpena erantsiz. Ikus dezagun bada nola burutu metodo hau eraginkorra izan dadin, gai bakarreko lana, alegia. Orotara 13 puntu dira, aintzat hartu behar ditugunak:

- 1.- **Gaia finkatu:** edo ikasleei aukera eman beren interesaren arabera eta landu nahi den gaitik atera gabe beraiek finka dezaten. Ohikoena irakasleak titulu iradokorra ematea da, gaiaren hautaketa berak egindakoa delarik.
2. - **Planifikazioa:** agindutako lan horretan zer atal egongo diren, zenbat denbora emango dugun bakoitzean, zer-nolako datu-iturriak edukiko ditugun eta kronograma nolakoa izango den zehazten da.
3. -**Informazio eta datu bilaketa:** datuak bildu behar ditugu gai horren inguruan, hala nola, Internet-etik, liburuetatik, aldizkarietatik, entziklopedietatik, hiztegietatik, ekai grafikoetatik, norberaren esperientzietatik, bideo eta DVDetatik, irakasle eta adituei egindako elkarrizketetatik...
- 4.- **Helburuak:** xede orokorra edo nagusia eta xede txikiagoak finkatu behar dira.
- 5.- **Hasierako gidoia:** hastapenerako ongarria izaten da zirriborroan gidoia egitea. Bertan lanaren atalak eta egitura ipini behar dira. Ondoren irakasleari eskatzen zaio ikusteko eta iritzia emateko.

6.- **Eskema garatua:** behin gidoia egindakoa, atalak garatzen dira eskema burutu ahal izateko.

7.- **Idazketa:** aurreko eskemari jarraituz hasi idazten, puntuz puntu joanez. Gogoratu behar dugu edukia pertsonalizatu behar dugula, modu kritikoan, originalean eta sormenezkoan, geure hitz eta esapideak tartekatuz. Erreferentziak ere alboan eduki behar gaia menperatzen dela adierazteko-edo. Puntuazio markak ondo erabili behar dira.

8.- **Irudi baliabideak sartu:** irudiak, argazkiak eta grafikoak sartzea ona izaten da. Hala ere, kontuz ibili behar da argitaratzeko lizentziekin. Gogora dezagun *copyleft* joera duen ekaia oso baliagarria dela edoniz argitaratzeko beti ere egileari aitortza ezagutuz. Beste ekai batzuk *Public Domain* erakoak dira, hau da, zeharo libreak direnak eta egileen aipamenik gabe joan daitezkeenak.

9.- **Irakurketa:** behin idatzi ostean, irakurri testuak eta beharrezkoa denean utzi denbora pasatzen berriro ere irakurtzeko, era horretan errazago ikusiko ditugu falta diren datuak, xehetasunak, errakuntza gramatikalak eta abar.

10.- **Laburpena edo abstract-a:** sarrera idaztea da, hau da, laburpena. Sarrera horretan, lanaren helburua, garrantzia, topatu ditugun eragozpenak, kontsultatu diren iturriak eta eskertzak (eman beharreean bagaude) ere ipini ahal dira. Baina hori baino garrantzitsuagoa lanaren egituraren berri ematea da, hau da, problemaren planteamendua, testuingurua, edukiak atalka eta bukaerako ondorioak.

11.- **Aurkibidea burutu:** hasieran kokatu ohi da aurkibidea, irakasleak non eta zer argi ikusteko. Hasieran ipini ezik, amaieran joan daiteke, nahiz eta amaierak aproposagoak izan indize analitikoak egiteko, testuan agertzen diren hitz garrantzitsuak zerrendatuz eta non dauden idatziz.

12.- **Bibliografia eta gainerako baliabideen gida:** bibliografian egilea, titulua, hiria, argitaratzailea, urtea eta orrialdeak jarri ohi dira ordenamendu horretan. Baina Internet-eko artikulua eta gainerako baliabideak ere aipatu behar dira, bibliografiatik at dauden ekaiak, hain zuzen ere.

13.- **Azala:** erakargarria izan behar. Gogora dezagun, lanaren egilea, ikasgunea, irakasgaiaren izena, irakaslea eta data jarri behar ditugula.

*Gorkaren ikasbitakora. Blog-a*

- Jarduerako B atala ebaluatzeko erabil daiteke.

Esplikatu eurek idatzi behar dutela. Jarduerak hasierako atalaren eredua baino ez dakar eta ikasleek amaitu egin behar dute. Irakasleari koadroaren barruan idatzita aurkeztuko diote.

Jarduera amaitzeko, ezaugarri orokorrak eman.

Definizioa:

[Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa](#)

## [Real Academia Española](#)

### **2. jarduera: glosategia eta monografia**

Jarduera honetan testu tipoa eta testu generoaren arteko bereizketa zehatzagoa egin nahi dugu. **Gaztelaniaz landuko duten testu tipo beraren beste genero bat da glosategia.** Ondorio argia atera behar dute.

#### **Prozedura:**

Ikasleek taldeka burutuko dute jarduera hau. Hala ere, irakaslearen laguntza beharrezkoa dela uste dugu, batez ere, behaketaren emaitzak adierazteko.

### **3. jarduera: objektibotasuna/subjektibotasuna bereizten**

Aurreko jarduerako enuntziatuetako bat testuaren objektibotasun-subjektibotasunari buruzkoa izan da. Jarduera honen helburua bi ikuspuntu horien bereizketa zehatza egitea da.

#### **Prozedura:**

Taldea irakurriko dituzte jarduerako testuak. Arretaz aztertu ondoren adierazi egingo dute zein edo zeintzuk diren objektiboak eta zeintzuk subjektiboak. Behaketaren emaitzak jarduerak dakarren taulan adieraziko dituzte.

Beste zenbait testu:

Portugalgo Albaitaritza Ikerketarako Laborategian egin berri duten ikerketa baten arabera, txerri-gibela jaten duten atletek positibo emateko arriskua dute antidopin kontrolatan.

Dirudenez, zikiratu gabeko ordotsaren gibela janez gero, gernuan azaltzen den nandrolonaren metabolito-maila kontrolatan baimentzen dena baino 10-100 aldiz handiagoa izan daiteke.

Izan ere, gizonezkoetan nandrolonarentzako gehieneko muga 2 ng/g-koa da, eta emakumezkoetan 5 ng/g-koa. Gorputzak, berez, kopuru horien % 10 ekoizten du gutxi gorabehera, hau da, 0,2 eta 0,5 ng/g hurrenez hurren.

Portugalgo ikertzaileen aurretik, Herbehereetako zientzialariek ere ikusi zuten nandrolona asko zuela hango saltxitxa-mota batean erabiltzen den pateak. Nolanahi ere, orain argi dago janariak duen nandrolonaren zati bat gizakiaren gorputzera

pasatzen dela; beraz, kontrolatan ezartzen diren neurriak berriro aztertzeko eskatu dute kirolariek.

Joerg Blech zientzialari eta kazetari alemaniarrek idatzi du Gaixotasunen asmatzaileak. Osasun arloko gaiez idazten du Blehek Der Spiegel aldizkarian, eta kaleratzen duen lehen liburua du hau. Izenburuan ondo baino hobeto adierazten duenez, botikagintza industriaren kontrako salaketa zuzen eta garbia da liburua. Datu, ikerketa eta adibide ugari ematen ditu liburuan zehar Blehek, eta ideia garbi bat azaltzen du: mutur guztiak ondo baino hobeto lotzen dituzten marketing eta kontzientziazio-kanpainen bidez, «gaixotasun bat, botika bat» leloari buelta eman dion gizartean bizi garela: «botika bat, gaixotasun bat» leloak agintzen du gurean; sendagai-industria boteretsuak (liburuaren hitzaurrean Nazio Batuen Erakundeari erreferentzia eginez esaten denez, munduko hirugarren alor ekonomikoa da, armagintza eta narkotrafikoaren atzetik), benetako gaixotasunak sendatzeko botikak bilatu eta merkaturatzeaz gain, merkaturatu nahi dituzten sasi-botikentzat neurri egindako gaixotasunak ere bilatzen ditu.


Oso lausoak izaten dira gaixotasun berri horiek askotan. Nekea, gogorik eza, umore txarra, lanean adi egoteko zailtasunak...«sintoma» horiek guztiak hartu, elkarrekin konbinatu eta dozena bat sindrome modernoren izenak emateko gai izango litzateke gutako edonor. Amu hori ez dugula irentsiko? Aspaldi irentsi genuen. Datuek erakusten dute: Ameriketako Estatu Batuetako Psikiatria Elkartearen eskuliburuan buruko 395 gaitz agertzen dira egun; Bigarren Mundu Gerraren amaieran 26 baino ez zeuden. Zatiketa egin, eta sei gaitz berri ematen du urte bakoitzeko.

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-tpe/html/user/anon/page/materialdidacticodetalle?qid=404>

#### Beste jarduera bat

- Aukeratu testu horietako bat eta ikuspuntua aldatu, bihur ezazue subjektibo edo objektibo.

Testuaren izenburua:



#### 4. jarduera: lexikoa . Hitzak sailkatzen

Sailkapena egiteaz gain, hitzen esanahia lantzeko egokia izan daiteke jarduera hau eta beste hizkuntza batzuetan ere lexikoa sorrarazteko baliabideak berdinak direla ikustarazteko (**gaztelania arloan ere hitzen morfologiaz jardungo dute**).

**Horregatik, jarduera hau gaztelania arloarekin eta baita ingelesarekin ere lotu daiteke.**

## **2. LAN –SEKUENTZIA**

### **GAIA ZEHAZTUKO DUGU: HERRIALDE GARATUEN ETA EZ-GARATUEN ALDEAK**

Lan sekuentzia honetan ikasleek beste arlo batzuetako edukiekin lan egingo dute (geografia, matematika...) Bestalde, ahozko azalpenak ematen trebatu eta talde lanetan norberaren iritziak defendatu eta ikaskideenak errespetatzeko ahaleginetan arituko dira.

Beraz, irakasleak taldekideen jarrera eta jokabidea baloratuko du behaketaren bidez; izan ere, jarrerazko eta prozedurazko helburu didaktikoak dira.

#### **5. jarduera: herrialde garatuen/ez- garatuen ezaugarriak aztertzen**

Zenbait adierazle emango dizkiegu. Ikasleek taldeka bildurik erabaki behar dute zein diren euren monografian aztertuko lituzketenak eta zergatia adierazi behar dute. Azalpena taldean prestatuko dute kideei euren hautaketaren berri emateko.

Irakasleak arbelean idatziko ditu proposamen guztiak eta ikastalde osoak aztertuko dituen adierazle komunak zein izango diren erabakiko da.

Bestelako informaziorik behar baduzue, helbide hauetan aurki dezakezue.

#### **(Grafikoak, indizeak, mapak eta abar lortzeko helbidea)**

<http://www.guiadelmundo.org.uy/cd/intro.html>

[http://www.osasun.ejgv.euskadi.net/r52-478/eu/contenidos/informacion/boletin\\_epidem/eu\\_5482/adjuntos/15boleeeusk.pdf](http://www.osasun.ejgv.euskadi.net/r52-478/eu/contenidos/informacion/boletin_epidem/eu_5482/adjuntos/15boleeeusk.pdf)

<http://www.indexmundi.com/> (**Munduko herrialde guztiak ageri dira bertan eta datu ugari.**)

#### **6. jarduera : zenbait datu Interneten jasotzen**

Datu bilketa selektiboa egiteko jarduera.

Proposatutako helbidetara jo beharko dute eta aurretiaz hautatutako adierazleei buruzko datuak jaso, txantiloian datu trinko, labur eta zehatzak adierazteko.

Nolako datuak jaso dituzten ikusteko txantiloia moztu daiteke eta irakasleak balorazioa egin.

Osagarri moduan , hona hemen beste zenbait helbide, aurretiaz aukeratutako bi herrialde horiei buruzko datuak jasotzeko:

<http://www.jalgi.com/atlasa/japonia.html>  
<http://www.jalgi.com/atlasa/kolonbi.html>  
[www.intermonoxfam.org/docs/global\\_arg\\_quadern\\_eus.pdf](http://www.intermonoxfam.org/docs/global_arg_quadern_eus.pdf)  
[www.intermonoxfam.org/docs/global\\_arg\\_revista\\_eus.pdf](http://www.intermonoxfam.org/docs/global_arg_revista_eus.pdf)  
[www.medicusmundi.es/Bizkaia/eus/enlaces.htm](http://www.medicusmundi.es/Bizkaia/eus/enlaces.htm)  
[www.ongdseuskadi.org/ficha\\_campanna\\_e.asp?codigocampanna=4](http://www.ongdseuskadi.org/ficha_campanna_e.asp?codigocampanna=4)  
**populazioari buruzko hainbat datu**  
<http://www.unfpa.org/issues/index.htm>  
**herrialdeei buruzko hainbat datu**  
<http://www.un.org/esa/>  
[www.fao.org/waicent/faoinfo/economic/ess](http://www.fao.org/waicent/faoinfo/economic/ess) (estatistikak topatzeko)

## **7. jarduera . Grafikoak: azalpen testuetan informazio bide garrantzitsuak**

Jarduera honen helburua grafikoen erabileraren garrantziaz konturaztea da. Orain ere ahozko jarduna izango da nagusi.

Zenbait grafiko eskainiko diegu (aukeran beste batzuk ekar ditzakete, edota unitatean bertan proposatzen den helbidetik atera). Grafiko bat hautatu eta bertako informazioa azaldu beharko dute. Alde batetik, grafiko mota, ezaugarriak, nola dagoen antolatuta; eta, bestetik, zer nolako informazioa dakarren, datuen azalpena, alegia.

Ebaluaziorako erabil daiteke honako jarduera hau.

Hemen daukazue beste grafiko bat, azalpen eta guzti. Material osagarri moduan erabil dezakezue gelan erakusteko eta jardueraren helburuaz konturazteko.

Heriotza-tasa Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan, 2001


2001. urtean 18.087 heriotza gertatu dira EHAEan bizi ziren pertsonen artean. Heriotzako 9.670 (%53,5) gizonzkoak ziren eta 8.417 (%46,5) emakumeak. Heriotza tasa gordina 868,5 da 100.000 biztanleko, 950,0 gizonzkoentzat eta 790,6 emakumeentzat. Heriotza tasa, adinaren arabera Europako populazio estandarri doiturik, 561,6 da 100.000 biztanleko, 783,5 gizonzkoentzat eta 393,0 emakumeentzat. Bai heriotzen kopuru absolutua eta bai tasak zertxobait baxuagoak dira aurreko urtekoak baino.

Zirkulazio sistemako gaixotasunak ageri dira lehenbiziko heriotza kausa gisa EHAEan 2001ean, heriotza guztien %31,8arekin.

Maiztasun ordenan, jarraian tumoreak daude %30,4arekin, arnas sistemako gaixotasunak %9,1arekin, sistema digestio sistemako gaixotasunak %5,4arekin, kanpotiko kausak %4,2arekin eta nerbio-sistemako gaixotasunak %4arekin. Sexuen arabera, banaketa honako hau da: gizonzkoengan heriotza kausa nagusia tumoreak dira %36,1arekin, eta bigarrena zirkulazio sistemako gaixotasunak %27,8arekin; jarraian arnas sistemako gaixotasunak datoz %10,4arekin. Emakumeengan zirkulazio sistemako gaixotasunak daude lehen lekuan %36,3arekin; ondoren tumoreak %23,9arekin eta arnas sistemako gaixotasunak %7,6arekin. (1 Grafikoa).

Gaixotasun talde nagusiek eragindako heriotza tasa proportzionalak sexuaren arabera.

1. Grafikoa EHAE 2001.



Adin taldeen arabera, 0tik 14 urtera kausa ohikoena afekzio perinatalak (%38,5) eta sortzetiko anomaliak dira (%16,5), eta jarraian tumoreak (%12). 15 urtetik 34ra kanpotiko kausak dira %55 heriotzaren erantzuleak, eta jarraian tumoreak (%15,3) eta zirkulazio sistemako gaixotasunak (%8,9). 35 urtetik 64ra %51,4 heriotzaren kausa tumoreak dira, eta jarraian zirkulazio sistemako gaixotasunak datoz (%19,3) eta kanpotiko kausak (%9,3). 64 urtetik gorakoengan, zirkulazio sistemako gaixotasunak daude lehen postuan (%34,9), eta ondoren tumoreak (%26,7) eta arnas sistemako gaixotasunak (%10,6).

Heriotza tasak kausa espezifikoaren arabera analizatzen badira, ikusten da gizonzkoengan heriotza-kausa nagusia kardiopatia iskemikoa dela (heriotza guztien %10,3), 100.000 biztanleko 90,4ko tasa espezifikoarekin. Bigarren lekuan trakea, bronkio eta birrikako tumore gaiztoak daude (heriotza guztien %10,3), 100.000 biztanleko 81,8ko tasa; ondoren gaixotasun zerebrobaskularrak (%7,3), 69,1eko

tasarekin. Emakumeengan heriotza-kausa nagusia gaixotasun zerebrobaskularra da (%11,3), 100.000 biztanleko 89,5 heriotzako tasarekin; bigarren lekuan kardiopatia iskemikoa dago (%7,5) 100.000 biztanleko 59,2ko tasarekin, eta zahartzaro eta zahartzarouurreko asaldu mental organikoak (%5,4), 100.000 biztanleko 42,3ko tasarekin. Haurren heriotza-tasa (urtebetez behekoak) 1.000ko 3,4koa da bizirik jaiotako haurrentzat, eta heriotza-tasa perinatala, 22 aste edo gehiagoko haurdunaldiaren ostean hilik jaiotakoen gehi bizirik jaio eta lehenbiziko astean hildakoen tasa 1.000ko 5,7 da.

Jaiotako bizi-itxaropena, edo batez besteko bizitza, EHAEan, 2001. urterako, 76,6 urte da gizonzkoentzat eta 84,3 urte emakumeentzat.

Covadonga Audicana

Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza

Heriotza-kausa nagusiak sexuen arabera.



## LAN-SEKUENTZIA

# AZALPENA NOLA ANTOLATU DEZAKEGU ERA EGOKIAN?

### 8. jarduera : testu antolatzaileak eta lokailuak

Informazioa ondo antolatzeko ariketak proposatzen dira honako honetan. Ikasleek bizpahiru ariketa izango dituzte testu antolatzaile eta lokailuekin aritzeko. Hala ere, **gaitasun diskurtsiboan** gehiago sakondu nahi izanez gero, ariketa osagarriak gehitu ditugu irakaslearentzako material honetan.

#### TESTUA

#### Obesitatea XXI. mendeko obsesioa

Kortabarria Olabarria, Beñardo

*Deia-ren D2 atalean argitaratua. 2002/05/14*

**"Gure ardi horiek hobe dute ase on bat bi gose baino" irakur daiteke Koldo Ameztoik kontatzen duen ipuin bateko pasarte batean. Ez zaio arrazoirik falta, gosea txarra da. Izan ere, egunero milaka pertsona hiltzen dira gosez herrialde txiroetan. Hemen ez, gizarte aurreratueta janariekin egiten diren gehiegikeriek goseak baino arazo gehiago sortzen dute.**



Gezurra dirudi; urte asko ez dela, gure gurasoek eta, **noski**, aiton-amonek gosea ezagutu zuten; gaur egun, gure artean goseak ez du arazorik sortzen; obesitateak, **aldiz**, gero eta gehiago.

**Izan ere**, obesitatea gaixotasun kroniko ugariaren eragile zuzen-zuzena da. Diabetea, bihotzeko gaixotasunak, minbizi-mota asko... gehiegi eta gaizki jatearen ondorio dira. (aurkaritza adierazteko), ezin da obesitatea = gose-eza identifikazioa hain argi egin. Obesitatearen atzean, sarritan bitamina- eta mineral-eskasia ezkututzen dira. **Hortaz**, adituek diote obesitateari elikaduraren eskasiari bezainbeste erreparatu behar zaiola.

Obesitatea zergatik gora? (...)

Elikadura txarraren ondorioak(...)

Egoera horien ondorioz, lodiak eta argalak antzerako osasun-arazoak izaten ari dira: sarriago gaixotzen dira, minusbaliotasun-arazo gehiago dituzte, urte gutxiago bizi dira, eta, oro har, produktibitate txikiagoa dute. Obesitateak gaixotasun kronikoak jasateko arriskua areagotzen du. Adibiderik nahi? Diabetea, hipertentsioa, bihotzeko gaixotasunak, arazo baskularrak, behazunaren gaitzak, minbizi-mota ugari... Eta, itxura guztien arabera,

horietako gehienak garapen-bidean dauden herrialdeetan gertatuko dira. **Adibidez**, adituek uste dute 2025. urterako obesitatea dela eta diabetesa izango dutenen kopurua 300 milioira iritsiko dela, horietatik 225 garapen-bidean dauden herrialdeetakoak. Bizirauteko dagoeneko arazo ugari duten herrialdeetan prebisio horiek beteko balira,

hondamendia  
litzateke.

gertatuko



**Zergatik  
gara?**



**gizentzen**

Obesitatearen

zergatiak

ez daude oso argi, baina adituek uste dutenez, genetikak, ingurunearen eraginak eta bizitza sedentarioak zerikusi handia dute.

Genetikaren arloan lanean dihardutenek dagoeneko ezagutzen dute obesitatearen genea, **hala ere**, ez dute uste hura bakarrean nahikoa denik obesitatea — **hau da**, gantz kantitatearen igoera— eragiteko. Ingurunearen laguntza ezinbestekoa da horretarako. Urte askotan argala = gaixoa, gizona = osasuntsua bezalako loturak egin dira, segurutik gosea, pobrezia eta gaixotasunak nagusi izan diren hainbat garairen herentzia gisara. Arbasoetatik jasotako mezu horien ondorioz, haurrei janari gehiegi emateko joera nagusitu da, eta baliteke horregatik nagusitzea haurren artean obesitatea. **Jakina**, haurtzaroan lodi diren horietako asko gero ere lodi izaten dira. Elikatzeko ohituren inguruko heziketa egokia oso garrantzitsua da, heldutasunean ohitura horiek ez baitira aldatzen.

Aurrez aipatutako loturak dagoeneko ez dira hain garbiak, **baina** ez dira erabat desagertu: ume potoloak ume ederra izaten jarraitzen du.

**Bestalde**, argi dago gizarte modernoan sedentarioa dela. Igogailua erabiltzeak, telebistako kateak aldatzeko urrutiko agintea edukitzeak, edo sukaldarainoko gasa izateak, **adibidez**, jarduera fisikorik ez egitea ekarri dute, aurrez programatutako zerbait ez bada behintzat. **Beraz**, gizakiak gero eta energia gutxiago gastatzen duenez, obesitateak gora egin du.

Egoera orokorrez gain, obesitatearen eragile izan daitezkeen arrazoi zehatzagoak **ere** badaude:

- ❖ **Gaixotasunak**
- ❖ **Botikak**
- ❖ **Tabakoa uztea**
- ❖ **Ebakuntzen ondorengoak**

**Jaten eta edaten duguna**

Fruta, zerealak eta kafesnea ogiarekin gosaltzeko; garbantzua, arraina eta arroz esnea bazkaritan, urarekin bustita; meriendan fruta apur bat; eta afaltzeko entsalada, zopa, arrautzopila eta gazta Errioxako ardoarekin lagunduta. Horrelakoak dira eguneroko elikagaiak, jan eta edaten dituguna, baina beste era batera ere esan daiteke.

Karbohidratoak, gantzak, proteinak, bitaminak, mineralak eta ura. Hori guztia aurki daiteke elikagaietan, eta hori guztia behar dugu bizi ahal izateko. **Izan ere**, horietako baten falta gaixotasun bilakatzen da. Horietako bakoitzak bere zeregina eta bere funtzioa ditu.

### **Gizena ala obesoa?**

Begiratu batean obesoa dirudien hori behar bada ez da obesoa izango, gizena, handia, ederra... baizik. **Izan ere**, gizen guztiak ez dira obesoa izaten. Ba al dakizu zerk bereizten dituen?

Obesitatea gorputzean gantz gehiegi izatearen ondorioz sortzen den gaixotasun kronikoa da, gizarte modernoetako gorabehera metaboliko arruntena. Sarritan likidoen erretentzioa eta obesitatea nahastu egiten dira, baina erabat desberdinak dira. **Izan ere**, likido-erretentzioen ondorioz pisua hartzea arraroa da. Gutxiegitasun kardiakoak, giltzurrunetako gutxiegitasunak edo gibelakoak eragin dezakete hori, baina horrelakoetan ezin daiteke obesitateaz hitz egin, obesitatea gantz-kantitateak gora egiten duenean sortzen baita eta ez ur-kantitatea handitzen denean.

Kasu batzuetan, nahiz eta pisu handia izan, ez dago obesitaterik. Hori, **esaterako**, kulturismoa egiten dutenekin gertatzen da, pisu handikoak eta gantz gutxikoak izan arren, muskulu-masa oso garatuta izaten dute eta.

Gizena egotea obesitatea izatea al da? Galde dezake batek baino gehiagok. Ez du zertan izan. Obesitateaz hitz egiteko hainbat sistema erabiltzen dira. Horietan erabilienetakoa gorputz-masaren indizea da. Indize horren kalkulua egiteko, honako formula simple hau baino ez da egin behar: Indizea = pisua kilotan / altueraren karratua. Adibidez, 60 kilo eta 1,7 metroko altuera duen pertsona baten gorputz masaren indizea honako hau da:  $60 / 1,7 \times 1,7 = 60 / 2,89 = 20,7$ . Indizearen ebaluazioa egitean, berriz, sailkapena honela egiten da:

- ❖ <20, pisu gutxi.
- ❖ 20-25, normala.
- ❖ 25,1-26,9, obesitate txikia.
- ❖ 27-29,9, lehen mailako obesitatea.
- ❖ 30-34,9, bigarren mailako obesitatea.
- ❖ 35-39,9, hirugarren mailako obesitatea.



- ❖ >40, laugarren mailako obesitatea, morbidoa

### Material osagarria

Testu antolatzaile eta lokailuei lotutako beste ariketa bat duzue honako hau. Hausnarketa metalinguistikorako baliagarria izan daitekeelakoan gaude.

#### Prozedura:

(Bakarkako lana) Eskatu, gutxienez, eman beharreko hogeit erantzunetatik 14 ondo egiteko (%70. EGA azterketan, edo Hizkuntza Eskoletako azterketetan honelako ariketetan eskatu ohi den portzentajea da).

#### AUKERA ANITZEKO GALDERAK: lokailuak

1. Txikitan pelikula asko ikusi genituen,.....Harry Potter, Peter Pan ...
  - a. izan ere
  - b. hala ere
  - c. beraz
  - d. hala nola
2. laz , ....., oso nota onak atera nituen.
  - a. beste bat
  - b. bat beste
  - c. batez beste
  - d. bat besteak
3. Itziarrek zazpi mutil lagun izan ditu dagoeneko. Eta Anek?
  - a. Anek ere bai izango ditu.
  - b. Baita Anek.
  - c. Anek ere bai.
  - d. Anek ere.
4. Ez zuen etsi ..... aukera guztiak agortu .....
  - a. nahiz eta / arte.
  - b. baita / ere.
  - c. nahiz eta / ere
  - d. harik eta / arte
5. Ikusi genuen lehen filma zoragarria izan zen; bigarrena, ....., guztiz kaxkarra.
  - a. ostera
  - b. bestela
  - c. ere bai
  - d. halaber

**6. Ibil zaitez kontuz horrekin; ..... engainatu egingo zaitu!**

- a. gainerakoan
- b. bestela
- c. ordea
- d. aitzitik

**7. Datu guztiak aztertu ondoren, ..... atera dugu garbi.**

- a. delakoa
- b. honako hau
- c. horrelako hori
- d. dena delakoa

**8. Ez dut askorik ikasi; ....., gainditzea espero dut.**

- a. beraz
- b. behintzat
- c. hortaz
- d. alabaina

**9. Azken orduko oztoporik ....., datorren astean lagunaren etxera joango gara lo egitera.**

- a. egon ezean
- b. gabe
- c. ez egotekotan
- d. ez ezik

**10. Ados zaude, ezta? Zer ari zara, ....., marmarrea?**

- a. bada
- b. ostean
- c. aldiz
- d. haatik

**11. Gurean ....., auzoan ..... izaten dira gatazkak.**

- a. ez ezik / ere
- b. ezik / bai
- c. aldiz / ere bai
- d. hala ere / bezalaxe

**12. Kaltegarria da erretzea; kaltegarria da ....., edatea.**

- a. ere bai
- b. halaber
- c. bebai
- d. ere

**13. Irratian ..... entzungo nuen berri bitxi hori.**

- a. dirudienez
- b. noski
- c. nonbait
- d. edo

**14. Zure anaia afarira joan zen, eta zu?**

- a. Neu ere bai.
- b. Ere bai, noski.
- c. Baita ere joan nintzen.
- d. Bai joan egin nintzen.

**15. Ni ez beste guztiak joan ziren komunera.**

- a. Ni izan ezik, denok ere joan ziren komunera.
- b. Ni ez ezik, denok joan ziren komunera.
- c. Denak joan ziren komunera, ni izan ezik.
- d. Denak joan ziren komunera. ni baizik.

**16. Horiek bakarrik ez, .....**

- a. guk ere bai dakigu.
- b. guk baita dakigu.
- c. geuk baita ere dakigu.
- d. geuk ere badakigu.

**17. Barruan daukazun guztia kontatu ....., ez zara lasai geratuko.**

- a. ezean
- b. baizik
- c. ez ezik
- d. beharrean

**18. Ezezagun hori ez da zuen etsaia, ....., zuen laguna izan nahi du.**

- a. halere
- b. halaz ere
- c. aitzitik
- d. bitartean

**ERANTZUNAK**

**1. hala nola  
2. batez beste  
3. Anek ere bai.  
4. harik eta / arte  
5. ostera  
6. bestela  
7. honako hau**

**8. alabaina  
9. egon ezean  
10. bada  
11. ez ezik / ere  
12. halaber  
13. edo  
14. Neu ere bai.**

15. ni izan ezik  
16. geuk ere badakigu.

17. ezean  
18. aitzitik

### Ariketa osagarriak:

- Ondoko testuan azpimarratuta dauden testu antolatzaile eta lokailuen esanahia antzeman behar dute eta beheko taulan sailkatu.

### Zergatik ematen dira horrenbeste organo?

Eredu horren arrakasta 1979an estreinakoz eman zen Transplanteei buruzko Legean eta 1980ko Errege Dekretuan garatu ziren ondorengo arautegietan datza: bertan, organoak emateko baldintza aurrerazaleak jasotzen ziren, hala nola, doakotasuna, hildako emailearen ustezko adostasuna eta emandako organoen hartzaileekiko berdintasun-printzipioa (ezin egin daiteke diskriminaziorik sexu, arraza, adin edo egoera sozio-ekonomikoagatik, alegia). Baina, transplanteak egiteko premia gorantz zetorrela eta, medikuntzan eta biologian egindako aurrerakuntzek erakusten zuten bezala, araudi haiek egun-eguneko panorama sozial eta biomedikura egokitzeko berrikuntza aplikatu beharra zegoen. Joan den urtarrilaren 5ean indarrean sartu den 2070/99 Errege Dekretu espainiarrak aurreko legeari erantsi dizkion hobekuntzetako bat, adibidez, organoen premiaz edo erabilgarritasunaz publizitatea debekatzea izan da. Bi berritasun nabarmenduko ditugu hemen: batetik, emaile biziak (hau da, bizirik dagoela, transplantea egiteko bere organoa –giltzurrunak edo bihotza, adibidez – ematen duena) organo hori emateko prest dagoela sinatuko du epailearen aurrean eta zeinahi unetan iritiz aldatu ahal izango da, organorik atera aurretik; sinatu duenetik 24 ordu igaro behar dira, gutxienez, organoa atera arte. Bestetik, bihotza gelditzeagatik hildako pertsonen ere organoak eraztea ahalbideratu da orain; lehen, aldiz, heriotza entzefalikoa gertatzen zenean bakarrik eraz zekizkikeen organoak hildakoari. Arau berriak, beraz, bihotza gelditzearen jazotako heriotza diagnostikatzeko irizpide berriak ezarri ditu.

<sup>2</sup> *Transplanteak Consumer, 2002-05-01. Santurtziko Udal Euskaltegia*

- Denon artean, lokailuen sailkapena alderatu eta osatu. Orena arbelean taula osatzea. Osatzearekin batera, sor litezkeen zalantzak-eta argitu.
  - Ariketa honetan antolatzaileak ezabatu dira. Ondoko testu antolatzaile eta lokailuak testuan txertatu: **esaterako/ hala ere/ horrenbestez/ bata/ bestea/ hain zuzen( ere)/ besteak beste/ ordea**

## Zergatik ematen dira horrenbeste organo?

Eredu horren arrakasta 1979an estreinakoz eman zen Transplanteei buruzko Legean eta 1980ko Errege Dekretuan garatu ziren ondorengo arautegietan datza: bertan, organoak emateko baldintza aurrerazaleak jasotzen ziren..... doakotasuna, hildako emailearen ustezko adostasuna eta emandako organoen hartzaileekiko berdintasun-printzipioa (ezin egin daiteke diskriminaziorik sexu, arraza, adin edo egoera sozio-ekonomikoagatik).

.....transplanteak egiteko premia gorantz zetorrela eta, medikuntzan eta biologian egindako aurrerakuntzek erakusten zutenez, araudi haiek egun-eguneko panorama sozial eta biomedikura egokitzeko berrikuntza aplikatu beharra zegoen. Joan den urtarrilaren 5ean indarrean sartu den 2070/99 Errege Dekretu espainiarrak aurreko legeari erantsi dizkion hobekuntzetako bat, organoen premiaz edo erabilgarritasunaz publizitatea debekatzea izan da..... Bi berritasun nabarmenduko ditugu hemen:..... emaile biziak (bizirik dagoela, transplantea egiteko bere organoa –giltzurrunak edo bihotza,– ..... ematen duena) organo hori emateko prest dagoela sinatuko du epailearen aurrean eta zeinahi unetan iritziz aldatu ahal izango da, organorik atera aurretik; sinatu duenetik 24 ordu igaro behar dira, gutxienez, organoa atera arte....., bihotza gelditzeagatik hildako pertsonen ere organoak erauztea ahalbideratu da oraingoan; lehen,....., heriotza entzefalikoa gertatzen zenean bakarrik erauz zekizkiokeen organoak hildakoari. Arau berriak,....., bihotza gelditzearen jazotako heriotza diagnostikatzeko irizpide berriak ezarri ditu.

### ***Adimena janzteko sakela hustu***

Testuan dauden hutsuneetan sar itzazu hurrengo lokailuak, juntagailuak eta menperagailuak:

**izan ere / bestalde / hori dela eta / izan ere / edo / eta / horregatik / edo / berriz / aldiz / baina / gutxienez**

### **ESKOLAN HASTEA GARESTIA DA GAUR EGUN, BATEZ ERE HEZKUNTZA PRIBATUA JASOTZEN DUTENENTZAT**

Iraileko aldapa deitu izan dio askok eta askok oraingo garai honi; , haurrak edo gaztetxoak eskolan hastea ez da batere merkea. Hezkuntza pribatua  publikoan ikasteak zerikusirik handia badu ere, iraileko gastuek familia askoren ekonomia kolokan jartzeko modukoak dira.

, kontsumitzaileen elkarteak hainbat ikerketa egin dituzte azken urteotan. Euskal Kontsumitzaileen Alkargoak (EKA) egindako ikerketaren arabera, aurreikusitako aurtengo ikasturtean prezioen % 1,7ko gorakada izango dela.

Ezberdintasunik nabarmena ikastetxe publikoen eta pribatuen artean dago, hileroko ordaindu beharreko kuotek  eskola uniformeei nabarmen igotzen



baituzte gastuak pribatuetan. Hala haurrak ikastetxe pribatu [ ] hitzartu batean dituzten Hegoaldeko familiek 120.000 eta 150.000 pezeta inguru gasta ditzakete irailean, seme-alaba bakoitzeko (4.800 eta 8.000 libera inguru).

Iparraldean, [ ] eskolan hastea merkeagoa da, [ ] ez merkea. Ikastetxe publikoetan dabilten haurrek 1.360 libera inguru gastatu behar dute materialean (34.000) pezeta inguru). Pribatuetako ikasleek, [ ], 3.320 libera inguru.

[ ], eskola liburuaren inguruan sortu izan dira eztabaidarik sakonenak; [ ], erabili beharreko liburuaren prezioen gorakada nabarmena izan baita azken urteotan.

[ ], kontsumitzaileen hainbat elkartek diote eskola liburuak doan beharko luketela izan, [ ] ikastetxe pribatu eta hitzartuetan.

Testuan dauden hutsuneetan sar itzazu hurrengo denbora adierazleak (antolatzaileak): **Normalean / agidanez / edo / antza / aitzina / ordea / nolabait / Are gehiago / , juntagailuak eta lokailuak: Orobat / Orain dela gutxi / Alde horretatik / antza denez / Izan ere / edo behintzat**

### POSITIBO IZATEKO ABANTAILAK

Denbora [ ] joan ahala, nik pentsatzen dudaren arabera, gure buruan oso borroka latza daukagu, positiboa eta negatiboaren artean. Gizakiaren oreka, [ ], hor galtzen da [ ] irmotzen da.

Horren arabera sinesmen positiboek sortzen dituzte bizitzaren maisuak. Ezkorrek, [ ], bihozmina eta pairamena. [ ] jarrera ezkorrekin alde edo moldez depresioa ager daiteke. Adu askok uste du ezkortasunak jokabide neurotikoa ekar dezakeela.

Antsiaz gain, ezkorrek [ ] berarengan akats pilo bat aurkitzen du. [ ] kritikak (kanpokoak zein barrukoak) min jasanezina egiten du. Horretan, buruak, porrotaren zain dagoenean, ezin du pentsatu.

[ ], positibo izateak esan nahi du zorientasuna hurbilago dagoela [ ] indar gehiago daukala lor dezan. Positiboaren bilaketa ohitura bihurtzen denean abantailak itzelak dira funtzionamendu pertsonalean.

Positiboki sentitzean, arintasuna, ongizate, esperimintatzen da. Irria, zorientasuna, bizitzeko alaitasuna, hedatzen dira. Jokabide positiboaren artean, gaindi azpimarratuko nituzke honako hauek : maitasuna, laztana eta gupida.

Jarrera positiboarekin irtenbideak bila daitezke, nahiz eta zailtasunak eduki. [ ] arazoak erronkak balira bezala har ditzakegu. Erronka aukera erabat gozagarri bilaka daiteke. Baikorrek helburua lortzeko egin beharrekoa burutzen dute. lehenago ekiten diote lanari.

Positiboek ez dituzte bilatzen aitzakiak erantzukizunak bertan behera uzteko.

[ ] estresak gai egiten ditu hobetzeko, sufrimenduak eramangarriagoak izan daitezken. Arrazoiak bilatzen dituzte. Egoera zailetan laguntza eskatzen dute konfiantza osoz.

Ez dute jotzen bere burua erruduntzat.

[ ] psikologo batzuek frogatzen zuten ikasle askorekin hiru hilabetetan zehar. Baikorrek ezkorrek baino estresaren sintoma gutxiago izan zuten. Esaterako, giharretako mina, nekea, bertigoa.

Informeak azpimarratzen zuen, azkenean dena etor daitekeela espero dugunetik. Beste aipamen bat egitearren, [ ] frogatuta dago baikorrek konfiantza gutxiago daukatela alkohola eta drogekin (tresna moduan) estresetik ihes egiteko.

Baikortasuna [ ] biziraupenerako funtsezkoa da. Jarrera positiboa duena ez dabil egun guztia keka baizik eta bidea jorratuz.

*Iturria: Santurtziko Udal Euskaltegiaren materialak Internetetik jasoak*

## 9. jarduera : Herrialdeen kokapena azaltzen

Guk hautatutako herrialdeen kokapena eta Horretaz gain, eurek aukeratuko duten herrialdearen kokapena zein den azalduko dute ahoz. Jolas moduan antolatuta dago honako jarduera hau.

Ikasleek, alabaina, azalpena laburra bada ere arretaz prestatuko dute (aurretiaz eman ahozko azalpena prestatzeko kontrol-orria).

Azalpena prestatu eta ikaskideek azalpen gaia identifikatu eta mapan idatziko dute izena.

Entzunaldi aktiboaren mesedetan ikasleek behaketarako ebaluazio orria beteko dute azalpenaren joanean. Azalpena laburra bada ere, laburtasun horretan argitasuna eta zehaztasuna dira baloratuko direnak, igorlearen jarrera, lexikoaren erabilera egokia, zuzentasuna...)

Ikasleek beren taldekideen ahozko jarduna baloratzeko honen moduko txantiloia izango dute:

### AHOZKO JARDUNA KONTROLATZEKO FITXA IRAKASLEAK /IKASKIDEEK EBALUATZEKO

Ipini ezazue X ondo egiten badute:

	1.ik	2.ik	3.ik	4.ik
• Interesa pizturik mantendu du				
• Intonazio egokia erabili du				

• Lexikoa hartzaileari egokitu dio				
• Jarrera eta keinuak egokiak izan dira				

Kanpo ebaluazioa egiteko erabiliko dugu jarduera hau. Komenigarria litzateke, ahal izanik, auto-ebaluazirako ere erabiltzea, beraz honako formatu hau erabil dezakezue .

### AHOZKO JARDUNA KONTROLATZEKO BEHAKETA FITXA AUTOEBALUAZIOA

Ikaslea: .....	BAI	EZ
• <b>Interesa pizturik mantendu dut</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• <b>Intonazio egokia erabili dut</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• <b>Lexikoa hartzaileari egokitzen ahalegindu naiz</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• <b>Jarrera eta keinu egokiak erabili ditut</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

- Honako ariketa hau ere egin daiteke:

Testu laburtxoak (lauzprobost lerrokoak) idatziko dute. Ikasleek aukeratuko dituzten bi herrialderen kokapenaren azalpen idatzia egingo dute. Ea ikaskideek gauza ote diren zer herrialde den asmatzeko!

**Prozedura**, ahozkoan bezala.

Herrialde horien kokapenaz gain, beste zenbait datu ere eman ditzakete azalpena hornitzeko.

Hori ere baloratu.

## 4.LAN- SEKUENTZIA MONOGRAFIA IDATZIKO DUGU

**10, 11 eta 12** jarduerak lan saio batean egitea proposatzen dizuegu.  
(Sarrera, hautatutako herrialdeak zergatik, lan helburuak zehazten.)

### **10. jarduera: planifikazioa**

### **11. jarduera: aztergaiak aukeratzen**

### **12. jarduera : datuak biltzen eta lanaren helburuak zehazten**

Jarduera honetan lan helburuak zehaztuko dituzte. Horretarako, ikastaldeak liburutegian edo-eta ordenadore gelan egingo du lan, kontsulta materiala behar izango baitu.

### **13. jarduera : gidioa eta eskema osatzen**

Hastapenerako ongarria izaten da zirriborroan gidioa egitea. Bertan lanaren atalak eta egitura ipini behar dira.

Irakasleak honako hau erabil dezake ikastaldekoak egiten ari diren lanaren zati-ebaluazioa egiteko eta lana ondo burutzen ari diren egiaztatzeko.

Eskema egiteko urratsak arbelean idatz daitezke honako proposamen honen arabera:

#### ***Irakaslearentzako txostentxo***

***Lanaren eskema eta gidioa***

***Hautatutako ikergaia:***

***Galdera nagusia:***

***Azpigalderak:***

***Honelako lan metodoa erabiltzeko asmoa daukagu:***

***Gaiari buruzko material hau aurkitu dugu:***


***Hemendik aurrerako pausoak emateko honako lan plan hau zehaztu dugu:***

- ***Beharrezko informazioa jasotzeko (inkestak elkarrizketak...)***
- ***Informazioa aztertzeko eta ondorioak ateratzeko:***
- ***Txosten idatziaren zirriborroa idazteko:***
- ***(denboralizazioa)***

#### 14. jarduera : konparazio-egitura

Idazketa egin eta irudi baliabideak sartzeko jarduera da honako hau. Idazketari ekin aurretik konparazio egituraren nondik norakoak labur-labur azalduko dizkiegu.

Jarduera honek balioko die, batez ere, idatziko dutenaren barne antolaketa zehazteko. Bi errealiteren arteko konparazioa egin behar dute. Laguntzarik behar izanez gero, honako egitura hau jar diezaiekegu arbelean beraiek ikus dezaten nola konpara ditzaketen bi errealitate zeharo ezberdin horiek.



Ondoren, anorexia eta bulimiari lotutako bi testu laburtxoren konparaketa egiteko eskatuko diegu konparazio egituran trebatzen hasteko.

#### 15. jarduera: konparazioa garatzeko sintaxia- ariketak

Konparatu dituzten errealitateak zirriborroan dituzte dagoeneko. Ez da hain erraza, dena den, egitura horiek ondo erabiltzea. Beraz, jarduera honetan bizpahiru taldek egindako zirriborroak zuzentzen arituko gara. Talde ordezkariek ozenki irakurriko du idatzitakoa (aurretiaz irakasleak zirriborroen fotokopiak banatu ditu) eta kide guztiek bakarka edo talde handian zuzenketak egingo dituzte.

Ikastaldearen arabera, irakasleak irizpideak zehaztuko ditu edota galderak idatziko ditu ikasleek ezaugarri zehatz batzuei errepara diezaieten. Azken jarduerako kontrol-orrian dauden zenbait item erabil daitezke.

Jarduera honetan, bestalde, konparaziozko eta moduzko egitura sintaktikoak lantzeko ariketak proposatzen dira. Jardueraren hasierako ariketaz gain, beste bi dauzkate, osasunarekin erlazionatuak: berridazketa ariketak ( 9-10..) eta herri

handietan edo txikietan bizitzeak dituen abantailen eta desabantailen arteko konparaketa.

### **Ariketa gehiago:**

#### **Zuzen itzazu esaldiak:**

1. Gustatzen zaidana gehien mutilak ez dauka zuk baino gehiago urte.
2. Bilbon Barakaldo baino kotxe gehien ibiltzen da.
3. Altuagoa ipini, mesedez; besterik, ez da entzuten.
4. Hori kantatzen du ondoen. Zu baino hobeagoa da.
5. Gaur eguerdian ez dit ikusi. Nire amama baino okerregia ikusten du.
6. Aurten galdutagoa nabil, ezer ez ikasten dut eta.
7. Beste lekutan ikusi dut nik hori, baina uste dut merke gehiago zela.
8. Hobeegi egiten du lehengoa izateko. Geroagoa galdetuko diot.
9. Honek hori baino azkarragoa egiten du lan, baina hori hobe egiten du.
10. Ez dago inon zu baino politagorik. Zoratzen didazu.
11. Nolakoa nahi duzu? Hau baino luzeago? Luzegi dela uste dut, baina zuk ikusten duzu, zurentzat da eta.
12. Nik zu daukat gehiago diru baino.

### **16. jarduera: lanaren sarrera idazten**

Lana biribiltzen ari dira. Orain zirriborroa amaituta dutelarik, lanaren justifikazioa edo laburpena idatziko dute.

Taula beteko dute eta bertako datuez baliaturik idatziko dute sarrerarako laburpen hori.

Modu egokian idazteko, aurreko jardueretako sintaxi ariketan zein lokailu eta antolatzaileak lantzeko ariketetan ikasitakoa kontuan hartu beharko dutela gogorarazi behar diegu.

### **17. jarduera: azken ekoizpena**

Jarduera hau aurrekoak baino luzeagoa da; izan ere, ikasleek aurkibidea idatzi, bibliografia aipatu eta azala diseinatuko dute. Ondoren, ikaskideei aurkeztuko diete egindakoa, beste taldekoek kontrol-orriaz baliatuta iradokizunak egin ditzaten.

#### **Oharra:**

Koebaluazioa eta irakaslearen ebaluazioa egiteko jarduera da.

Jarduerako zuzenketa-orria erabil dezakete idazketarako kontrol-orri gisa. Taldekideei lana pasa eta orrian idatziko dituzten iradokizunak kontuan hartuta azken orrazketa egingo dute

Irakasleak ere azter dezake lana eta kontrol-orri hori erabili berak ere beste zenbait iradokizun egiteko.

Azken zuzenketak egindakoan eta testua ondo orraztutakoan, erakusteko moduan egongo da eta alboko gelakoan liburutegi txokoan edo ikastetxekean jarriko dute ikusgai.

**LANA BERRIKUSTEKO TXANTILOIA**

	ZUZENKETA-IRIZPIDEAK	BAI/EZ	IRUZKINAK
<b>EGOKITZAPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informatzeko xedea betetzen du testuak?</li> <li>• 3. pertsonan idatzita dago?</li> <li>• Igorlearen aipamenik egiten da?</li> <li>• Iritzirik ageri da?</li> <li>• Testu objektiboa ala subjektiboa da?</li> <li>• Egokia da erabilitako erregistroa (hiztegia)? Oso landua? Lagunartekoa ?</li> <li>• Erraz ulertzen da?</li> <li>• Lexikoan teknizismoak ageri dira?</li> </ul>		
<b>KOHERENTZIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuak ematen duen informazioa garrantzitsua da?</li> <li>• Errepikatzen da?</li> <li>• Gehiegizkoa da?</li> <li>• Datu kontraesankorrik ageri da?</li> <li>• Testuaren egitura argia da? Kapituluak, atalka antolatuta dago?</li> <li>• Paragrafo bakoitzak ideia bat garatzen du?</li> <li>•</li> </ul>		
<b>KOHESIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Paragrafoak elkarri lotuta daude?</li> <li>• Bada lokailurik?</li> <li>• Lokailuen erabileran aberastasunik antzematen da?</li> <li>• Egitura konparatiboa argi ikusten da?</li> <li>• Bada puntuazio-akatsik?</li> <li>• Gaiaren erreferentzia galtzen da?</li> </ul>		
<b>ZUZENTASUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aditza orainaldian eta indikatiboan dago?</li> <li>• Zer nolako perpausak dira nagusi? (erlatibozkoak, adierazpen perpausak, konparaziozkoak...)</li> <li>• Perpausak sintaktikoki ondo egituratuta daude?</li> <li>• Bada nahaste edo akats lexikorik?</li> <li>• Bada akats ortografikorik?</li> </ul>		
<b>BESTE BATZUK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Behar bezala emana dago testua orrialdean?</li> <li>• Tipografia egokia erabiltzen du?</li> <li>• Irudiek eta bestelako baliabide grafikoek testuaren argitasunari laguntzen diote?</li> <li>• Bada azalik? Bada aurkibiderik?</li> <li>• Glosarioa dauka eranskin gisa?</li> <li>• Bibliografiaren aipamenik egiten da?</li> </ul>		

*Kurrikulu desberdinetarako materiala. B01/B07/B08 BERRITZEGUNEAK*

## **BALIABIDEAK INTERNETEN**

### **MUNDUKO HERRIALDEEI BURUZKO HAINBAT DATU**

[www.indexmundi.com/es/](http://www.indexmundi.com/es/)

<http://www.guiadelmundo.org.uy/cd/index.html>

### **POPULAZIOARI BURUZKO HAINBAT DATU**

<http://www.unfpa.org/issues/index.htm>

<http://www.un.org/esa/> (ingelesez)

[www.fao.org/waicent/faoinfo/economic/ess](http://www.fao.org/waicent/faoinfo/economic/ess) (FAO)

### **NAZIO BATUAK**

<http://www.un.org>

### **MEDECINS SANS FRONTIERES (MSF)**

<http://www.msf.org>

### **OSASUNARI LOTUTAKO INFORMAZIOA**

[http://www.hiru.com/osasuna/osasuna\\_05\\_07\\_01.html](http://www.hiru.com/osasuna/osasuna_05_07_01.html)

[http://www.hiru.com/osasuna/osasuna\\_05\\_07\\_03.html](http://www.hiru.com/osasuna/osasuna_05_07_03.html)

[http://www.hiru.com/osasuna/osasuna\\_05\\_07\\_04.html](http://www.hiru.com/osasuna/osasuna_05_07_04.html)

[http://news.bbc.co.uk/hi/spanish/news/newsid\\_3016000/3016150.stm](http://news.bbc.co.uk/hi/spanish/news/newsid_3016000/3016150.stm)

<http://www.cimac.org.mx/noticias/00dic/00121701.html> (HIESari buruzko datuak, gaztelaniaz)

[http://news.bbc.co.uk/hi/spanish/science/newsid\\_1950000/1950556.stm](http://news.bbc.co.uk/hi/spanish/science/newsid_1950000/1950556.stm) (gaztelaniaz)

<http://es.wikipedia.org/wiki/Salud>

[http://eu.wikipedia.org/wiki/Kategoria:Gaixotasun\\_infeziosoak](http://eu.wikipedia.org/wiki/Kategoria:Gaixotasun_infeziosoak)

<http://www.elmundo.es/elmundosalud/2004/06/09/medicina/1086804288.html>

<http://elmundosalud.elmundo.es/elmundosalud/2004/06/09/medicina/1086804509.html> (gazt.)

<http://www.lukor.com/hogarysalud/noticias/0411/01192515.htm> (gaztelaniaz)

[www.intermonoxfam.org/docs/global\\_arg\\_quadern\\_eus.pdf](http://www.intermonoxfam.org/docs/global_arg_quadern_eus.pdf)

[www.intermonoxfam.org/docs/global\\_arg\\_revista\\_eus.pdf](http://www.intermonoxfam.org/docs/global_arg_revista_eus.pdf)

### **MONOGRAFIAK**

<http://www.monografias.com/trabajos13/japoayer/japoayer.shtml>